



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2010-07-01

VII. URTEA 2.040. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Herri kirol jaialdian, atzo, aizkolariak eta harri jasotzaleak aritu ziren. Argazkian Aimar Irigoien. E. MAIZ

JUBILATUEN EGUNAREN OSTEAN ATSEDEN HARTUKO DUTE JAIEK

ASTEASU Hiru egun gelditzen dira San Pedro jaiak amaitzeko; azkenetan lehena biharkoa izango da, Koadrilen Egunekoa s

AITOR IMAZ ETA IMANOL ARANDIA
KUP ABESBATZAKO KIDEAK

«Toursen hiru modalitatetan aurkeztu ginen eta hirurak irabazi genituen»

TOLOSA Frantziatik abesbatza lehiaketa irabazita etorri dira; Tolosan egongo den Europako Sari Nagusian egoteko eskubidea ere lortu dute 7

Bartolak jai alternatiboak aurkeztu ditu

IBARRA Herri mugimenduko kideek «Udalaren jarrerak okerrera egin duela» salatu dute 6



Atzo aurkeztu zituzten jai alternatiboak herriko plazan. E. EZEIZA



Udako Turismo Bulegoa inauguratu zuten atzo. A. IMAZ

Uda honetan Trianguloan egongo da Turismo Bulegoa

TOLOSA Atzo zabaldu zituen ateak eta irailaren 26a bitarte egongo da zabalik 2



Udako Turismo Bulegoak atek zabaldu zituen atzo, irailaren 26ra bitartean egongo da Trianguloa. A. IMAZ

Ateak zabaldu ditu Trianguloa plazako Udako Turismo Bulegoak

Tolosa » Irailaren 26ra bitarte zabalik egongo da eta eskaintza zabalak eskainiko die herritarrei eta kanpotarrei.

ERREDAKZIOA

Aurten lehen aldiz Tolosan, Udako Turismo Bulegoa ezarriko da, bisitariarentzat ikuserraza den koparen batean, Trianguloa Plazan.

Udako Turismo Bulegoa, Tolosako *Turismo Mahaiaren* iniziativa izan da. Berau, 2010eko otsailaren hasi zen lanean, «Tolosa eta Tolosaldeko turismoa promoziona-

tu, indartu eta koordinatzeko helburuarekin».

Iniziatiba Tolosaldea Garatzeko laguntzarekin Tolosako udal-letxetik abiatu bazen ere, «*Turismoa Mahaiaren* eragile publiko eta pribatuaren arteko elkarlana bilatzen da, baita ere turismoarekin erlazioan atutako arlo eta eremu ezberdinetako ikuspuntuak, turismoa zeharkakotasunez landu ahal izateko».

Turismo Bulegoa irekita

Udako Turismo Bulegoa atzo inauguratu zuten eta irailaren 26ra bitartean zabalik egongo da, Trianguloa Plazaren erdian.

Ordutegiari dagokionez, astelehenetik igandera eskainiko ditu bere zerbitzuak Turismo Bulegoak, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:00etara.

Eskaintzari dagokionez, uztailearen 15etik irailaren 12ra zabalik egongo dira ondorengoak: Gorrotxategi museoa, 10:00etatik 14:00etara; Santa Maria eliza, 15:30etik 17:30era eta Aranburu jauregia, 17:30etik 19:30era. Horretaz gain, hainbat bisita gidatu egingo dituzte Alde Zaharrean berrera. Larunbatetan berriz, Babarunaren ibilbidea berreskuratuko dute Zerkausiara bisitatu egingo dituztelarik.

Jende ugari Baliarraingo Frontenis Txapelketan

Baliarrain » Iban Zabaleta beasaindarra izan zen txapelkun mutiletan, eta nesketan, Elena Artieda eta Txus Boubet donostiarrak.

da, lau bikotek eman baitute izena. «Nesketa bikoteka egitea erabaki genuen, banaka oso gutxi animatzen direlako eta binaka aldiz errazagoa delako izena ematean».

Finalak

Mutulen kategorian, Iban Zabaleta beasaindarra eta Mikel Goitia amezketarra izan ziren finalean, txapelketa eta txapelkunordea, hurrenez hurren. Unai Mendia saikatu zen hirugarren postuan, Aitor Aranbururi irabazita.

Antolatzaileak gustura agertu dira emaitzarekin, «uste baino jende gehiago animatu da aurten»; izan ere, 52 mutilek hartu dute parte aurtengo Txapelketan.

Nesken kopurua txikiagoa izan

Nesken kasuan, Elena Artieda eta Txus Boubet donostiarrak osatutako bikotea, Amaia Agirre billabonatarra eta Mireia Lezea berrobiarrak osatutako bikotearen aurka aritu ziren, lehen bikotea txapelkun suertatu zelarrik.



Ezkerretik eskuinera: Boubet, Artieda, Lezea eta Agirre finalistak. U.M.

Enpresen inguruko ikerketa

ERREDAKZIOA

Lehiberrik eskualdeko enpresen inguruko ikerketa bat burutu du. «Ohiko jardueran beharrezko dituzten eta gaur egun ondo asegabe eduki ditzaketen zerbitzu edota produkturik ba ote den identifikatzeko» helburuarekin. Guztira 461 enpresa igaro dituzte.

Ondorioen artean, honakoak aipatu zituzten atzoko aurkezpenen: Enpresek atzerrian euren produktua saltzeko aukera ikusten dute, hornikuntzak erosteko baino gehiago. Berrikuntzen arloan, enpresek kudeaketa mailan produktuen garapenean baino gehiago



Lehiberrik burututako ikerketa aurkeztu zuten atzo Tolosako udal-letxean. A.I.

baloratzen dute, nahiz eta puntuazioa antzekoa izan. Elkarlanak ez du puntuazio handiegia lortzen.

Lehiberrikoen esanetan, etorkizunera begira garrantzi handiko faktorea izango den elkarlana.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40



Ezker-eskuin: Mendia, Zabaleta, Goitia eta Aranburu, lehen lau saikatua. U.M.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosako Korreo kalean, egoera onean eta bizitzera sartzeko moduan dagoen pisua.

Dena kanpoaldera, PVCko leihoak eta gasa. 179.000 euro. Interesatuek, deitu 658 75 21 50 telefono zenbakira.

Egun nahiz gauerako eskaintza

Kultura » Bihar eta etzi Tolosandblues izango da; irailera arte, berriz, antzerkiak, kontzertuak, filmak... izango dira kalean nahiz tabernetan.

INIGO TERRADILLOS

Musika, antzerkia, malabareak, zinema... denetarik izango da udako egun eta gauetan kaleko giroa alaitzeko. Batetik bihar eta etzi Tolosandblues izango da Tolosako Udalak antolatuta. Lekukoa Zikloiak hartuko du ondoren, Intojai antzerki konpainiak eta Ezpeleta tabernariaren elkarteak antolatutako ekimenak. Azkenik, Gau Giroen baitan, Udalaren eskutik, gauetarako eskaintza zabalda izango da.

Hasteko, blues doinuak

Bluesarekin hasiko da bihar eta etzi udako eskaintza. Bihar Euskal Herria plazan eta Fronton kafetegian izango dira emanaldiak, eta etzi, Amartzten, Plaza Berrian eta Frontonen. Ohi bezala kalitatezko musikaz gozatu ahaliko da.

Gaugiroko Zikloia

Azken urteetan herririko hainbat txokotan udan gaueko kontzertuez gozatzeari oihiko bilakatu da. Aurten ere, kontzertuak, antzerkia nahiz zinema izango da, irailaren hasierara arte, baina berrikuntza bezala, egunera ere zabalduko da eskaintza. Izan ere, Ezpeleta elkar-tea eta Intojai konpainiaren eskutik, hainbat ikuskizun izango dira Zikloia izenburupean.

Andoni Iturzaeta kultur zinegotziak Ezpeleta elkarteko enpartehartzea nabarmetzen du: «Zi-

kloia ekimenaren proposamena aurkeztu ziguten, eta laguntzako prestazaldu da Udala, eta horrela, elkarlanean, egitarau bateratua prestatu dugu. Ezpeleta elkarteko enlana eskertu beharra dugu». Ezpeleta elkarteko Ibon Leundak, bere aldetik, Udalaren laguntza eskertzen du «ekimena babesteagatik» eta May Gorostiagari ere antolaketan laguntzeagatik: «Gauak beteak zeudela ikusten genuen, baina egunerako hutsunea zegoen, eta horregatik zerbait prestatzea pentsatu genuen, ostalaritzarako ere egokia izango zelakoan».



May Gorostiaga, Ibon Leunda, Andoni Iturzaeta eta Jokin Ansorena, atzoko aurkezpenen. I.T.

» EGITARAUA

Tolosandblues

Uztailak 2, ostirala.

- Red House + Lou Marini, Euskal Herria plazan, 22:30ean.
- The Romanticos, Fronton kafetegian, 00:30ean.

Uztailak 3, larunbata.

- McJeara's Band, Amartzten auzoan, 20:00etan.
- Sherman Robertson, Plaza Berrian, 22:30ean.
- Victor Puertas + Jp Cumellas, Fronton kafetegian, 00:30ean.

Zikloia

Uztailak 3, larunbata.

- David Batlo (malabareak) 11:00etan Arostegieta kalean, eta 12:00etan Korreo kalean.
- Fermin Sanles (malabareak)

11:00etan Korreo kalean eta 12:00etan Tontokalen.

- Nanny Gogorno (kale zirkoa), Plaza Berrian, 13:00etan, eta Euskal Herria plazan, 20:30ean.

Uztailak 7, asteazkena.

- Mariano Martinez (kafe antzerki emanaldia), Orbel tabernan, 22:30ean.

Uztailak 8, osteguna.

- Kixka (txotxongiloak), Plaza Berrian, 19:00etan.
- Mariano Martinez (kafe antzerkia), Solana 4 tabernan, 22:30ean.
- Diego magoa, Elorri, 22:30ean.

Uztailak 21, asteazkena.

- Diego magoa, Elorri, 22:30ean.

Uztailak 22, osteguna.

- La compañía del saco (juglarrak, musika, txotxongiloak), Euskal Herria plazan, 19:00etan.

- Diego magoa (magia), Astearra tabernan, 22:30ean.

Gau Giro

Uztailak 9, ostirala.

- Hogeihatx proiekt (kontzertua), Euskal Herria plazan, 22:30ean.

Uztailak 10, larunbata.

- Los muchos caminos a Santiago (antzinako musika), Santa Klaran, 20:30ean.

Uztailak 16, ostirala.

- La Barraca (antzerkia), Plaza Berrian, 20:30ean.
- Mikel Andueza eta Iñaki Salvador (jazz kontzertua), Fronton kafetegian, 23:00etan.

Uztailak 23, ostirala.

- Tolosako Musika Banda, Lopez Mendizabal kalea, 22:30ean.

Uztailak 30, ostirala.

- Txileko Antumapu taldea (dantza folklorikoak), Euskal Herria plazan, 22:30ean.

Abuztuak 4, asteazkena.

- *Pagafantas* filma, Amartzten auzoan aire librean, 22:30ean.

Abuztuak 5, osteguna.

- *Death proof* filma, San Esteban auzoan aire librean, 22:30ean.

Abuztuak 27, ostirala.

- Miren (kantaldia), Plaza Berrian, 22:30ean.

Irailak 3, ostirala.

- Manent (kontzertua), Plaza Berrian, 22:30ean.

Irailak 4, larunbata.

- Eutsi + Box.a (musika eta performancea nahasturik), Plaza Berrian, 22:30ean.

Amarozko Antzerki Asteak ireki ditu ateak

Antzerkia » Atzo ekin zion eta igandera arte luzatuko da; adin guztiei eskainitako ikuskizunetz gozatu ahaliko dute auzotarrek.

I. TERRADILLOS

Antzerkia izango da aste honetan protagonista Amartzten auzoan. Hamabigarren urtez, Amaro-zko Antzerki Artisauen eskutik hainbat antzezlanetz gozatzeko aukera izango dute auzotarrek, Amaro-zko Antzerki Asteari esker.

Atzo hasi ziren antzezlanekin, eta igandera arte luzatuko dira. Bihar arte, emanaldi bana izango da. Hala, gaurkoan, Perminen *Txanan txanan* lana izango da ikusgai, eta bihar, *La compañía del sacore Camino de estrellas*.

Asteburua osatua datorrigu. Etzi, *Hip Hop* lana izango da, eta

» EGITARAUA

- **Uztailak 1, osteguna.** Perminen *Txanan txanan*, 18:00etan.

- **Uztailak 2, ostirala.** *La compañía del saco* taldearen *Camino de estrellas*, 19:00etan.

- **Uztailak 3, larunbata.** Free Dance Hop-en *Hip Hop*, 18:00etan. Jon Magik, 18:30ean.

- **Uztailak 4, igandea.** David Batlo (malabareak eta claquea), 18:00etan; Txefo ta Anduriñaren *Flamenkito*, 18:20ean; eta Nanny Cogornoren *Jujurujaja*, 19:00etan.

ondoren, Jon Majik mago irurarraren magiaz gozatu ahaliko da. Igandea izango da azken eguna, eta beteena, hiru saio izango baitira.

Adin guztiei zuzendutako saioez beteko dira auzoko txokoak, eta Antzerki Artisauen herriar guztiak gonbidatzen dituzte bertara.



Itziar Rekalderen *Zerutik itsasora bidaia* lana izan zen atzo auzoan ikusgai. E. EZEIZA



Floren Mansoren lanak ikusgai

Alegia » Alegiako jubilatuen tabernako erakusketa Floren Mansoren lanek beteko dute, hilaren hamabira arte.

ERREDAKZIOA

Paisaiez beteko da taberna hilabete honetan, Floren Mansoren eskutik. Bertako margolanetan, Euskal Herriko txoko ezagun asko ikusi ahal izango ditugu, kolore biziko uneetan harrapatuak. Herriko festak hasi artean ikusi ahal

izango dira lanak. Tolosan ere izan du berriki erakusketa ordiziarrak, eta orain Alegiara eraman ditu bere margolanak.

Paisaia koloretsuak

Erakusketara eramandako lan gehienak paisaiak badira ere, de-

netik margotzeko gai da Manso, «ez naiz bereziki ezerean bila joaten, atentzioa ematen didana edo gustatzen zaidana mihisean islatzen saiatzen naiz». Horren erakusle da, erakusketan ikusgai dagoen eta goian, ezker aldean ageri den argazkiko margolana, non lorontzi bat agertzen den.

Oleo teknikaren bidez eginiko lanak diraguztiak, margolariak berak aitortu duenez hori baita gehien gustatzen zaiona: «bestelako teknikekin ere aritu izan naiz

margotzen, baina errazen erabiltzen dudana eta finean, gehien gustatzen zaidana oleoa da».

Betidanik izan du zaletasuna ordiziarrak eta teknika askorekin animatu da, berak dioen bezala, «zikintzeko beldurrik gabe» aritzen baita lanean.

Margolanak salgai

Erakusgai egoteaz gain, tabernan ageri diren margolan guztiak salgai daude.

Honela, bertaratutako edonork

izango du margolan hauetaz gozatzeko aukera, eta nahi izanez gero, baita erosi eta etxeratzeko aukera ere.

Berez hilerio aldatzen dira jubilatuen tabernako erakusketak, eta honetan ere hala izango da. Baina herriko festak direla medio, hilaren 12an amaituko da Floren Mansoren txanda. Egun hauek aprobetxatu behariko ditu erakusketaz gozatu nahi duenak, festen ondoren hurrengo artistak hartuko baitu taberna, hilabeterako.



VI. Transernio Pilota Txapelketako partida bat. N. URBIZU

VII. Transernio Eskuzko Pilota Txapelketa hastear

Aduna » Benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako 33 bikotek hartuko dute parte. Bihar jokatuko dira lehen partidak.

E. MAIZ

Zazpigarren urtez jarraian, Aduna, gaztetoentzako Transernio Esku Pilota Txapelketa antolatuko dute. Benjaminak, alebinak, infantilak eta kadeteek hartzen dute parte bertan.

Txapelketari hasiera bihar emango diote. Partida guztiak Adunako pilotalekuan izango dira ostiral eta larunbatetan. Ostiraleko partida guztiak, 18:30ean izango dira eta larunbatetakoak berri, 11:00etan.

Adunako Pilota Eskolako gurasoek antolatzen dute txapelketa eta Transernio dute laguntzaile.

Hamar herriren arteko lehia

VII. Transernio Esku Pilota Txapelketan, hamar herri ezberdinetako pilota eskolak izango dira: Usurbil, Añorga, Hernani, Lasarte, Andoain eta eskualdekoak ditugun, Villabona, Zizurkil, Bidegoian, Amezketeta eta Aduna bera.

33 bikoteek, lau kategoriatan banatuta jokatu dituzte partidak eta kanporaketak uztailean zehar izango dira. Partida galtzen duen bikotea kanporatua izango da. Finalak, Adunako festetan jokatuko dira, abuztuaren 7an.

Bihar, hilak 2, 18:30etan alebinak eta infantilek jokatuko dute. Lehen partidak Lasarte-Aduna ariko dira eta bigarrenetan, Amezketeta Lasarte.

Hilaren 3an, 11:00etan, benjaminetan Aduna-Zizurkil eta Bidegoian-Lasarte lehiatuko dira. Kadeteetan aldiz, Añorgak Zizurkil-ena aurka jokatu du.



Herri kirol saioa izan zen herriko plazan. Otaegi eta Mujika aizkolariak eta Izeta II.a eta Irigoien herri jasotzaileak. E. MAIZ

Gaurko atsedeen egunaren ostean, bihar koadrilak izango dira protagonista

Asteasu » Atzo jubilatuaren eguna ospatu zuten eta atsedeen ostean beste hiru egun geratzen zaizkie jai giroan ibiltzeko.

ENERITZ MAIZ

Asteasuarrak jai giroan murgilduta dabilta asteleheneretik. San Pedro Jaiak ospatzen ari dira eta hiru eguneko festaren ostean, gaur atsedeen eguna dute. Baina, oraindik, beste hiru egun dituzte jai giroaz gozatzeko.

Jubilatuak beraien eguna ospatu zuten. Lehenik eta behin, meza izan zuten eta ondoren, hamaiketako ederra eman zieten Aitzondo Elkarteak. Tripa bete ostean, guztiak elkartetik kalejiran atera ziren plazara gerturatzeko. Plazan kokatuta dagoen karparen azpian, herri jasotzaileak eta aizkolariak zain zituzen. Asteasuarrak, Joseba Otaegi eta Jexux Mari Mujika aizkolariak eta Izeta II.a eta Aimar Irigoien herri jasotzaileen arteko lehia ikusteko aukera izan zuten. Jarraian, jubilatuak bazkaria izan



Hamaiketakoaren ostean, kalejiran joan gerturatu ziren plazara. E. MAIZ

zuten pilotalekuan. Zapre eta Zaharra trikitalariekin eta Telleria eta Zeberio bertsolariekin.

Arratsaldean, herriko dantzari-emanaldia izan zen eta ondoren, Egan taldearekin erromeria izan zuten goizaldera arte.

Hiru egun aurretik

Ostiralean koadrilen eguna ospatuko dute eta larunbatean eta igandean ere ez da parrandarako aukerarik faltako. Larunbat goizean,

futbol torneo eta mus eta txin-txon txapelketak izango dira. Arratsaldean, zezen txiki eta poney-ak, Arkupeko pilota txapelketa eta pala txapelketa izango dira. 23:30ean hasita, Inde Kitxen eta Esne Beltza taldeen kontzertua izango da.

Igandean, pilota jaialdia eta ondoren, sagardo dastaketa izango dira. Arratsaldean, Asteasu taldeen arteko herri kirolak izango dira eta bukatzeko Laket taldea.

Laburrak

Bihar 20:00etan herri batzarra izango da

AMEZKETETA » Bihar 20:00etan, herri batzarra egingo dute gela polibaleantean. Bertan Ezker Abertzalearen eta EAren akordio estrategikoren nondik norakoak azalduko dituzte. Oraingoan, herritarrek azalduta eta herritarren artean hitz eginez osatu nahi dute iritzia. Herritar guztiak gonbidatuta daude bertan parte hartzera eta baita iritzia ematera ere.

Emendek Elkartearen urteko batzar nagusia

TOLOSA » Hilaren 3an larunbata, 11:00etan hasita, Emendek Arraun kirol Elkarteak urteko batzar nagusia ospatuko du elkartearen egoitzan. Bazkide guztiei dei egiten diete bertan parte hartzera. Hiru puntu izango dira: kontuen balantzea, zuzendaritza berriaren izendatzea eta galde-eskeak.

Zaldi Lasterketako txartel saritua 1.393a izan da

ABALTZISKETA » Aurtengo festetan Zaldi Lasterketa antolatu ahal izateko txartelak saldu dituzte. Saria, Herriko Ostatu tabernan, bi lagunentzako afaria da eta zozketa igandean bertan egin zuten. Zerbaki saritua 1.393 zenbakia izan da eta duenak, 652 72 68 68 telefonora deituta jarri beharko da antolatzaileekin harremanetan.

Labanarekin mehatxatuz lapurtzeagatik atxilotua

TOLOSA » Astelehenean gizonezko bat atxilotu zuen Ertzaintzak. Lau lapurreta labanarekin mehatxatuz egitea lortu du. Lehena apirilaren 29an egin zuen, bigarrena maiatzaren 27an, hirugarrena ekainaren 6ean eta azkena ekainaren 15ean Donostian. Ertzaintzak azkenean identifikatzea lortu du eta Tolosan atxilotu zuen.

» SAN PEDRO JAIK

Bihar, ostirala KOADRILEN EGUNA

- **14:30ean.** Koadrilen bazkaria herriko plazan.
- **16:00etan.** Gaztetoen goitiberak, Elizmendin.
- **18:00etan.** Musika izango da herriko kaleetan barrena. Orkestra Itinerante (Txaranga elektikoa) ibiliko da.
- **21:30ean.** Herri afaria plazan.
- **Ondoren.** Trikujai diskofestarekin musika izango da goizaldera arte.

Gozatu Frantziako Tourraz Tropelean!

Abian da tropela.net:
tourra, sarean, euskaraz,
eta sariekín...

Izen ematea dohainik.
Bona emateko egun: Irailaren 1, 11 eta 15

Berriak sartzen, hitzak harpidetuz irabazteko aukera. tropela.net



Bartola herri mugimenduko kideek agerraldia egin zuten atzo Jaiak iragartzeko. ESTI EZTIZA

Aurten ere jaiak izango direla iragartzeko etorri da Bartola

Ibarra » Atzo agerraldia egin zuten herri mugimendukoek ibarbarrei argi uzteko, jai alternatiiboak izango direla hirugarrenez.

ERREDAKZIOA

Festetarako hilabete eta erdi falta bada ere, Bartolajada agertu da herri, hauek iragartzera. Atzo berak eta beste hainbat ibarbarrek agerraldia egin zuten aurten ere «Bartolaren festak, festa alternatiiboak» izango direla agertzeraz.

Duela bi urte, lehendabiziko adiz, herritar talde batek ekin zion Bartolajaiak antolatzeari. Orduetik, hainbat aldaketa eta gertaera jazo dira herrian, hala, atzo azaldu zuten, «egoera okerrera joan da epealdi honetan». Izan ere, Bartolaren esanetan, «azken urteetako zentzugabekeri guztiei, haur eskolako gatazka, tasen igoerak, OTA,

herritarrek emandako 710 bozkei jaramonik ez egitea, etxetik urrun dauden presoei diru laguntzak kentzea eta abarri, beste zerrenda bat gehitu behar zaio». Horietan, nabarmentzekoena, onartu berri den legedia dela deritzote herri mugimendukoek. Honen arabera, «taldeei diru-laguntzak kendu baiditzkiete eta txosnak erregulatu». Udalaren azken erabaki honen haritik sortu zen, herriko hainbat eragile eta talde biltzen dituen Eman bidea herriari taldea. Horren baitan dago Bartola ere.

Udalaren festak

Duela hilabete inguru, Udalak ohar baten bidez jakitera eman zuen, «aurten, aurreko urteetan bezala, udalerriko bizilagunek San Bartolome jaiak ospatzeko aukera izango dutela, zenbait elkartetan Jai Batzordean parte-hartzeari ezezkioa eman badiote ere». Horretarako 70.000 euroko aurrekontua

dute. Honen aurrean, Bartolakoen hitzetan, «Ibarra herriak lezio bat eman dio Udalari, eta lehen bakkarik bazeuden, aurten are gehiago». Hori dela eta, Bartola elkartetan, herritarrek zoriondu nahi dituzte, «Udal honi argi eta garbi esan dietelako herriaren kontra ez dagoela jokatzetik».

Dena den, bat egiten dute Udalarekin, esatean, aurten festak izango direla, «baina ez Udalarenak, ibarbarrenak baizik». Festa herrikoiak eta parte-hartzaileak nahi dituztela aldarrikatu zuten atzoko agerraldian, eta horren adibidez, antolatu dituzten zenbait ekintza aipatu. Esaterako, tortilla txapelketa, lagunarteko jolasak, erreka jaitsiera, bazkari herrikoiak, danborrada, musika emanaldiak, sokatira apustua, futbol 3a... Dena den, ohartarazi zuten, programa oraindik ez dagoela itxita, eta jendearen proposamenak entzuteko gogoz daudela.

Udal eraikinetan energia aurrezteko lanak hasi ditu Udalak

Ibarra » Proiektuaren aurrekontua 207.000 eurokoa da eta hiru hilabete beharko dituzte batz beste, gauzatzeko.

ERREDAKZIOA

Ibarra Udalak bere jabetzakoak diren eraikin ezberdinetan energia kontsumoa murrizteko helburua duten lanak martxan jarri ditu. Jarduera hau aurrera eramateko aurreikusitako epea hiru hilabetekoa da eta bere aurrekontua berriz, 207.000 eurokoa. Kopuru hau Lana eta Tokiko Jasagarritasunerako Estatu Fondoak finantzatu du.

Udalaren jabetzako eraikinetan energia aurrezteko xedearik egingo diren egokitzapen lanak Tarte enpresak garatuko ditu. Proposatutako aldaketek, Kiroldegia, Uzturpe ikastola, Kultur Etxea, haurtzaindegia eta Ibarra udal leixeari eragingo diete. Egingo diren lanak Arrese-Igor enpresak udal instalazioak zein egoeratan aurkitzen ziren jakiteko eginiko azterlan batean jasotzen dira eta bertan, energia gastu garaia mu-

rrizteko neurri ezberdinak hartzea proposatzen da.

Kiroldegiaren kasuan, lan hauen funtsa eraikinaren kanpoaldean gas naturala eta beroa ekointzeko sistema bat instalatzea da. Bi neurri hauek udal txean ere aplikatuko dira, eta bertan, gainera, egungo balbulak termostatikoak diren beste batzuegatik ordezkatuko dira, gutxitan erabiltzen diren esparruetan.

Hezkuntzara bideratutako eraikinei dagokionez, haurtzaindegiko energia banaketa zirkuituak aldatu egingo dituzte ahalik eta us-tiapen gehien lortzeko, eta Uzturpe ikastolan berriz, luminariengan eragingo dute. Ekimen honen bidez, orain bigarren solairuko geletan jarritako dauden energia gutxiago kontsumitzen duten beste batzuegatik ordezkatuko dira.

Bukatzeko, Kultur Etxean ere egokitzapen lanak egingo dituzte energiaren erabilera hobetzeko. Udal txerako aurreikusitako bezala, gutxi erabiltzen diren esparruetako balbulak, termostatikoak diren balbulengatik ordezkatuko dituzte eta berokuntza zirkuitu berriak sortu.

Laburrak

Ohiko Osoko Bilkura egingo du etzi Udalak

IBARRA » Etzi, Udalbatzak Ohiko Osoko Bilkura egingo du. Bilkura 09:00etan izango da udal txerako Batzar Aretoko nagusian. Besteak beste, zabor biltzetagatik ezarritako tasen epigrafeek jasan duten al-daketari buruz kontu emango dute.

Udako ordutegia abian da Kultur Etxe eta Liburutegian

IBARRA » Udal Kultura eta Gazteria Sailak jakitera eman duenez, hermendik irailaren 3ra bitartean Kultur Etxea goizez bakarrik egongo dira zabalik. Uztailearen 30a arte, 09:30etik 14:00etara, eta abuztuan itxita. Irailaren 1etik 3ra berriz, goizetan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

E Elkarrizketa

AITOR IMAZ ETA IMANOL ARANDIA › Kup abesbatzako kideak



«Oraindik ez dakigu zen abesbatzekin lehiatuko garen, baina ziur maila altua izango dela»

IMANOL ARANDIA
Kup abesbatzako kidea



«Zure ezagun guztien aurrean abesteak, kanpoan abesteak ez duen berezitasun bat du»

AITOR IMAZ
Kup abesbatzako lehendakaria

«Europako Sari Nagusian Tourseko ordezkari izango gara»

Abesbatza» Toursen lortutako arrakastari esker, Kup Taldea datorren urteko Tolosako Abesbatzen Nazioarteko Lehiaketan izango da.

ANESANZ

Tourseko (Frantzia) abesbatza lehiaketa besapean dutela, Aitor Imaz (Tolosan, 1975) eta Imanol Arandiak (Tolosan, 1966) Kup taldeaz eta Europako Sari Nagusiaz hitz egin dute. Datorren urtean Tolosan ospatuko den lehiaketan ditu begiak taldeak orain. Kup taldean Euskal Herri osoko kideak daude, horietariko lau, tolosarrak. **Maiatzean Tourseko abesbatzen lehiaketan hiru sari garrantzitsuenak lortu zenituzten. Orain arteko garaipen gozoena izan dela esango al zenukete?**

Imanol Arandia: Gozoena... garai-pen guztiak dira pozgarriak. Baina hau berezia izan da, emaitza ezin hobeak lortu ditugulako. Arrakasta osoa izan da. Ezin genituen sari gehiago jaso.

Aitor Imaz: Hiru modalitatetan aurkeztu ginen, eta hiruk irabazi genituen. Hirurak irabazita, Tourseko sari nagusia gureganatu genuen. Horrela, datorren urteko Europako Sari Nagusian Tourseko ordezkariak izango gara.

Lehenengo urtean ere Europako Sari Nagusirako sailkapenetik oso gertu egon zineten. Ez al da horrela?

A. I.: Bai. Irabazi genuen, baina berdinketa bat gertatu zen Esloveniako koro baten eta gurearen artean. Oinarrien arabera, Europako Sari Nagusira beraiek joatea erabaki zuten. Aurkeztu ginen hirur kategorietatik, beraiek bitan eta guk bakarrean irabazi genuelako.

Hurrengo Europako Sari Nagusia Tolosan ospatuko da. Zuen etxean lehiatzeak, indar berezi bat emango al dizue?

A. I.: Berezia izango da azken finean, etxean izango delako. Zure lagunen, zure ezagun guztien aurrean abesteak, kanpoan izango baten edukiko ez lukene berezitasun hori duelako.

I. A.: Gainera merkeagoa izango da guztiontzat.

Kup Taldea lehiatu zen lehen aldía, Tolosan izan zen ere. Eta emaitza onak lortu zituen dudarik gabe (3. saria folklore sailean, eta 4. saria polifonían). Datorren urtean hobetzeko asmoz al zoazte?

I. A.: Lehiaketa guztiak, baita Sari Nagusiak ere, maila desberdinekoak izaten dira urtetik urtera. Klasifikatzen diren taldeen arabera, maila aldatzen baita. Oraindik ez dakigu zein abesbatza klasifikatuko diren hurrengo urterako, bai-

na ziur gaude maila altukoak izango direla. Urtetik urtera gorabeherak izaten dira, eta emaitzetan ere islatzen dira.

Taldean Euskal Herri osoko jendea biltzen zarete. Nola bururatu zitzazuen abesbatza bat sortzea?

A. I.: Musikenen sortu zela esan dezakegu. Gabriel Baltés (Kup Taldeko zuzendaria), bertako abesbatza zuzendaritzako irakaslea da. Kasualitatez, nire lagun batzuk bere ikasleak ziren. Gutxi batzuk elkartu ginen, eta talde bat osatzea pentsatu genuen. Gabrieli eagu zuzentzeko prestegongo zen galdetu genion, eta baietz esan zuten. Duela zazpi urte hasi ginen 16 kide ginen, eta ordutik taldea ugartzen joan da.

I. A.: Helburuak ere aldatu egin dira. Hasiara baten gure helburua, musika pixka bat egitea zen. Zuzendaria oso ona zela, eta hemen zegoela aprobetxatuz. Hasiara baten inongo asmorik gabe hasi ginen; musikarekin disfrutatzea zen helburu bakarra. Ondoren, taldeak nahiko maila altua zuela ikusita, lehiaketetan parte hartzea bururatu zitzaigun. Eta gaur egun arte.

Abesbatzaz gain, bakoitzak zuelana edo ikasketak dituzue, eta Euskal Herri osoan sakabanaturik bizizarete. Erraza egiten al zaitzue guztiok elkartzeko?

A. I.: Desberdina da, ez garelako alde horretatik abesbatza «nor-

mal» bat. Printzipioz hilabetean behin elkartzeko gara Tolosan. Musika eskolako lokal bat uzten digu Udaletxeak eta. Intentsiboa izaten da; asteburu oso bat edo igande oso bat igarotzen dugu entsegua. Azken finean, beste taldeek hilabetean egiten dituzten orduak, guk egun bakarrean egiten ditugu. Elkartzeko garenetan, 8 ordu abesten igarotzen ditugu. Desberdina da beraz lan egiteko modua.

I. A.: Bestalde, koroan dagoen jende gehienak partitura bat irakurtzeko nahikoa erraztasun du. Musikalki jendea ondo prestatuta dago, eta honek lana aurreratzen laguntzen digu. Entsegura etxekolanak eginak eramaten ditugu, denbora ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

A. I.: Funtzionamendua ezberdina da. Errazagoa izateko entsegua berehala hastea, eta azkarra egin ahal izateko guztia.

Zazpi urte, hiru lehiaketa, eta Europako Sari Nagusi bat bidean. Zer nabarmenduko zenukete egindako ibilbidetik?

A. I.: Nik esan behar dut, Imanol dela Europako Sari Nagusian bigarren aldiz parte hartuko duen Espainiako persona bakarra, ziurrenik.

I. A.: Beno, hori adin kontua besterik ez da (barreak). Europako Sari Nagusia 80. hamarkadaren amaieran hasi zen. Eta orain arte inoiz sailkatu den Euskal Herriko bigarren taldea garaigu. Lehengo taldea Hodeiertz izan zen 1992an.

A. I.: Imanol han izan zen, eta datorren urtean errepikatuko egingo du. Ez dutuste munduan beste inor bitan egon denik Europako Sari Nagusi batean.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: OS-3398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Tolosa.** Perminen *Txanan Txanan* ikuskizuna, 12. Antzerki Astearen barnean, 18:00etan, Amarotz auzoan.

Kirola

■ **Amezketak.** Uztailaren 3 eta 4rako Pirinioetara mendi irteera antolatuta du Alegiako Mendi Asanbladak. Izen-ematea, ohiko tokietan. Antolatzailea: Alegiako Mendi Asanblada.

■ **Tolosa.** Uztailaren 16tik 18ra Eriste (3.053 m) eta Posets (3.375 m) mendietara irteera antolatuta du Oargik, Viados eta Angel Orus aterpetxeetan lo eginez. Informazioa: www.oargi.org. Antolatzailea: Oargi mendi elkarte.

■ **Tolosa.** Tolosa-Jaca bizikleta irteera antolatuta du Oargik asteburu honetarako, ostiralean Tolosa-Lunbier eta larunbatean Lunbier-Jaca eginez. Informazioa: www.oargi.org. Antolatzailea: Oargi mendi elkarte.

■ **Tolosa.** Pala Txapelketa jokatu da bikoteka Berazubiko frontoian uztailaren 5. Izen-ematea uztailaren 5a baino lehen, Tolosa CFko bulegoetan (656 719263 edo 943 671749) 10 eurotan bazkideek eta 20 eurotan bazkide ez direnek. Antolatzailea: Tolosa CF.

■ **Villabona.** Uztailaren 11rako Oza-Castillo de Atxer (2.384 m)-Aguerri (2.449 m)-Gabardito (Huesca) mendi irteera antolatuta du Aizkardik. Informazioa: www.aizkardi.com. Antolatzailea: Aizkardi mendi elkarte.

Dantza

■ **Tolosa.** Udaberri dantza taldeak datorren ikasturterako haur ikastaroetan izena emateko epea zabaldu du. Kultur Etxean egin behar da 17:00etatik 20:00etara. Antolatzailea: Udaberri Dantzari Taldea.

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Estibaliz Colindres Albo Avene Laborategiko farmazialari prestatzaileak azala eguzkitik babesteko zenbait aholku emango ditu, Kultur Etxean 18:30ean. Antolatzailea: Minbiziaren Aurkako Elkarte eta Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuak.

■ **Villabona.** *Ahozotasuna kulturaren, eguneroko jardun berezietan eta haur munduan* jardunaldiak burutuko dira uztailaren 22, 23 eta 24an Subijana Etxean. Izen-emateko epea uztailaren 16ra arte luzatuko da 50 eurotan (EHBEko bazkideek eta ikasle eta langabeteuek, berriz, 35 euro). Mintzola Fundazioan egin behar da (943 69 41 29 edo administrazioa@bertsozale.com). Antolatzailea: Mintzola Fundazioa eta Bertsozale Elkarte.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 67 36 49.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala
08:30. Estetika. **09:00.** Mukamuka. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kafe terdi. **10:30.** On ein! **11:00.** Planik bai. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Salto-k 2010. **12:30.** Wazemank. **13:15.** Klipak. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kafe terdi. **14:30.** On ein! **15:00.** Planik bai. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Salto-k 2010. **16:30.** Wazemank. **17:15.** Klipak. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoako kultura. **18:30.** Sakonduz. **19:00.** Tokika. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Eskuokin.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Urteurreneko kontzertu berezia

ALEGIA • Txintxarri abesbatzak eta Txintxarri Txiki abesbatzak kontzertua eskaini zuten iragan larunbatean Alegiako Kultur Etxean. Musika tailerreko ume-

ek ere parte hartu zuten emanaldian. Munduko musikak jo zituzten, eta jende ugari gerturatu zen abesbatzaren 50. urteurreneko ekitaldira. HITZA

A Agurrak



Zorionak Aitor!

Lizartzako Ezker Abertzalearen partetik, zorionak Aitor eta eutsi goiari!

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 beheko • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>